

ZARAUZKO UDALAREN 2024. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 132 artikuluan:

“Arau-plangintza.

- 1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak.*
- 2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”*

Udalak xedapen orokor batzuk aurreikusiko ditu, araugintza onaren printzipioetan oinarrituta. Aurreikuspen horiek udal jardunaren planifikazioa hobetzen dute, gardentasunean sakondu, segurtasun juridikoa areagotu eta herritarren parte-hartzea bultzatu.

Helburu horiek lortzeko asmoz, udal departamentuek egindako proposamenekin bat etorriz, Zarauzko Udalaren Araugintza Plan hau egin da 2024. urterako, honako eduki honekin:

A) ANTOLAKUNTZA ARLOA

A.1. KONTU-HARTZAIETZA - ERRENTAK

A.1.1. ORDENANTZA FISKALAK (aldaketa)

Justifikazioa:

Udal tributu eta prezio publikoen urteko berrikuspenak eta eguneratzeak egitea, honako gai hauek kontuan izanda:

- Ordenantzak egokitzea, maila goreneko xedapenen aldaketetara edo berrikuntzetara.
- Udal zerga, tasa eta prezio publikoak eguneratzea edo aldatzea, bai kopuruei dagokienez, bai hobari eta salbuespenei dagokienez.

- Diru-sarrereren maila eguneratzea edo aldatzea.
- Prozedura administratiboak eta zerga-kudeaketa arrazionalizatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Udalaren nahikotasun finantzarioaren printzipioa indartu eta mantentzea, Udalak bultzatu edota ekidin nahi dituen egintzak eta helburuak kontuan hartuta.

A.2. IDAZKARITZA

A.2.1. HILERRIKO ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Herritar askok uste dute nitxoek eta banakako hezurtegien kontzesio-denbora laburra dela. Gainera banakako hezurtegietan soilik pertsona bakarraren errauntsak gorde daitezke. Hori dela eta eskaerak jaso dira epe hori luzatzeko. Ikusita nitxo eta hezurtegi asko hutsik daudela eta Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duen 202/2004 Dekretuak baimentzen duela epea luzatzea, ez dago eragozpenik eskaera horiek onartzeko eta kontzesioen epeak luzatzeko.

Bestalde, ordenantzak ez du espresuki jasotzen panteoien emakida berriek ze indarraldi izango duten, ezta horien prezioa nola zehaztuko den ere. Orain arte, hutsik dauden panteoien emakiden deialdietako plegu administratiboetan jaso izan dira atal horiek, baina beharrezkoa da informazio hori ordenantzan bertan sartzea: alde batetik, emakida berrien amaiera 2048ko maiatzaren 30a izango dela, gainontzeko guztiak bezala, ez daitezen egon interpretazio ezberdinak; eta bestetik, emakidaren prezioa finkatzeko oinarriak zehaztea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Nitxoei dagokienez, egungo ordenantzak 10 urteko epea aurreikusten du. 10 urte pasatutakoan, ordenantzak dio hezurak hezurtokira eramango direla. Epe hori luzatzea da aldaketaren muina.

Banakako hezurtegiei dagokienez, ordenantzak jasotakoaren arabera, hezurtegiak banakakoak dira, ezin dira pertsona gehiagoren errauntsak jaso hezurtegi bakoitzean. Eskaerak jaso dira hezurtegi bakoitzean pertsona bat baino gehiagoren errauntsak gordetzeko. Espazioaren aldetik posible denez, aukera hori ematea da aldaketaren helburua.

Horrez gain, ordenantzak espresuki adieraztea emakida berrien indarraldia, eta prezioa zehazteko oinarriak.

A.2.2. ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA (aldaketa)

Justifikazioa:

2023ko urriaren 26an egindako bilkuran, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL ORDENANTZAREN aldaketa eta testu berria onartu ditu Udalbatzarrak.

Orain, dirulaguntzen ordenantza orokorra aldatu behar da, berdintasunerako ordenantzan jasotako irizpideak txertatzeko.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL ORDENANTZAREN testu berriak, IX. kapituluan, dirulaguntzak emateko berdintasun-irizpideak jasotzen ditu.

Horrenbestez, DIRULAGUNTZEN UDAL ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN 11., 20. eta 33. artikulua aldatu behar dira, berdintasunerako ordenantzaren testu berrira egokitzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

DIRULAGUNTZEN UDAL ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA eguneratzea EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL ORDENANTZAREN testu berrira egokitzeko.

B) HERRITARREN ARLOA

B.1. GIZARTE ZERBITZUAK

B.1.1. ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA (aldaketa)

Justifikazioa:

ADINEKO PERTSONENTZAKO BABESPEKO APARTAMENTUAK ARAUTZEKO ERREGELAMENDUAN (2019ko otsailaren 19ko GAOn argitaratutakoa) hainbat zehaztapen egin nahi dira erabiltzailearen ekarpenari dagokion artikuluan (23. artikulua). Aldaketa egiteko arrazoi nagusiak:

- Bikoteen kasuan, ez da zehazten zein izango den eskuragarri gelditzen den kopurua ezartzeko formula.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunen kasuan, zein ekarpen egin behar duten zehaztu nahi da.
- Ekarpen minimo bat jartzea aztertu nahi da, edozein kasutan.
- Urteko IPREM (Ondorio askotarako Errentaren Adierazle Publikoa) kalkulatzeko, 12 edo 14 hilabetekoa izatea aztertu eta zehaztu nahi da.

- Beste zehaztapen batzuk.

Ekimenaren helburu nagusia:

Erabiltzailearen ekarpenari dagokion artikulua egokitzea/aldatzea, egun dituen hutsuneak saihesteko eta zehaztapen gehiago jasotzeko.

B.1.2. GIZARTE ZERBITZUETAKO DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Justifikazioa:

Hainbat dirulaguntza-oinarrik izaten zituzten aldaketa etengabeen ondorioz, eta azken urteetako koiuntura kontuan izanda (bereziki COVID-19aren pandemiak eragindakoa), urte batzuetan ekitaldi bakarrerako oinarri espezifikoak onartu izan dira. Dirulaguntza-oinarriei eta horietan zehazten den arautegiari iraunkortasun bat emateko asmoz, dirulaguntza-deialdi horietara aurkezten direnen segurtasun juridikoaren mesedetan, oinarri espezifiko horiek ordenantza bidez onartzea proposatzen da, hainbat urtetan arautegi berbera mantentzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntza-oinarriei iraunkortasuna ematea eta hainbat urtetan indarrean egongo diren oinarriak onartzea, dagokion ordenantza tramitatuz.

B.2. PAREKIDETASUNA

B.2.1. PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK (2023. URTEA)

Justifikazioa:

Hainbat dirulaguntza-oinarrik izaten zituzten aldaketa etengabeen ondorioz, eta azken urteetako koiuntura kontuan izanda (bereziki COVID-19aren pandemiak eragindakoa), urte batzuetan ekitaldi bakarrerako oinarri espezifikoak onartu izan dira. Dirulaguntza-oinarriei eta horietan zehazten den arautegiari iraunkortasun bat emateko asmoz, dirulaguntza-deialdi horietara aurkezten direnen segurtasun juridikoaren mesedetan, oinarri espezifiko horiek ordenantza bidez onartzea proposatzen da, hainbat urtetan arautegi berbera mantentzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntza-oinarriei iraunkortasuna ematea eta hainbat urtetan indarrean egongo diren oinarriak onartzea, dagokion ordenantza tramitatuz.

B.3. KIROLA

B.3.1. JARDUERA FISIKOAREN ZEIN KIROL PRAKTIKA ETA GARAPENAREN UDAL ARAUDIA

Justifikazioa:

Herriko udal kirol instalazio guztietarako araudi orokor bat egiteko beharra dago. Aritzatalde kiroldegiko araudia Kirol Patronatua funtzionamenduan zegoen garaikoa da, eta, ez duenez bat egiten gaur egungo errealitatearekin, ez da bideragarria. Besteak beste, honako gai hauek arautzeko beharra ikusten da:

- Udaleko kirol instalazio berrien erabilera txertatzea.
- Udal kirol instalazioetako erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak gaur eguneko errealitatera egokitzea.
- Diziplina prozedurak, zigor araubidea finkatzea.
- Azken urteetako araudi berriak txertatzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Egungo araudietara, kirol politikara, errealitatera eta erabiltzaile motara egokitzea Zarauzko udal Kirol Departamentuko araudia.

B.3.2. KIROL DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Justifikazioa:

Hainbat dirulaguntza-oinarrik izaten zituzten aldaketa etengabeen ondorioz, eta azken urteetako koiuntura kontuan izanda (bereziki COVID-19aren pandemiak eragindakoa), urte batzuetan ekitaldi bakarrerako oinarri espezifikoak onartu izan dira. Dirulaguntza-oinarriei eta horietan zehazten den arautegiari iraunkortasun bat emateko asmoz, dirulaguntza-deialdi horietara aurkezten direnen segurtasun juridikoaren mesedetan, oinarri espezifiko horiek ordenantza bidez onartzea proposatzen da, hainbat urtetan arautegi berbera mantentzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntza-oinarriei iraunkortasuna ematea eta hainbat urtetan indarrean egongo diren oinarriak onartzea, dagokion ordenantza tramitatuz.

B.3.3. ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Ordenantza egokitu egin behar da Udala parte izan den 545/2022 prozedura judizialean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzietako Salaren 1. Atalak emandako 385/2023 sententziaren interpretaziora, uda garaiko jarduerak urte osokoetatik bereizteko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Aipatutako ordenantza sententziaren interpretaziora egokitzea, eta Udalaren jarduna modu berean egokitzea.

B.4. UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUNA

B.4.1. ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA. TAO (aldaketa)

Justifikazioa:

ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO (TAO) ORDENANTZAREN helburua trafikoa arautu eta hobetzea da. Ordenantzak leku eta denbora mugak jartzen ditu 3.500 kg-ra arteko edozein ibilgailu aparkatzeko. Helburua da oreka handiagoa lortzea herriko hainbat zonatan aparkatzeko dagoen eskaintzaren eta eskariaren artean. Horrenbestez, eremu horietako aparkalekuak zerbitzu partikularrerako edo publikorako antolatzen ditu, mugatze-, kontrol- eta inbertsio-jardueren bidez, ibilgailuen trafikoan arintasuna hobetzeko eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko.

Urteak pasatu ahala, ordenantzak hainbat aldaketa izan ditu sortutako beharren arabera. Hala ere, gaur egun eguneratze integrala behar du, Zarauzko hiri-eremua eta hiri-bideak aldatu direlako eta ordenantza horren oinarri den araudian eguneratze eta aldaketak egon direlako: besteak beste, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako testu bateginak xedatutakoa.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantzak xedatzen duen guztia gaur egungo hiri-esparrura eta indarrean dagoen legedira egokitzea.

B.4.2. ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA Zarauzko udalerritari berezko arau batzuk ezartzeko idatzi zen, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Bide Segurtasun eta Trafikoari buruzko Legeak ezartzen zituen neurrien osagarri gisa, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko xedez.

Ondorengo urteetan, 339/1990 Legearen testu artikulatuan eragina zuten arau ugari sortu ziren, eta horiek jasotako xedapenak barneratzeko, 2014. urtean, apirilaren 7ko 6/2014 Legeak Gobernuari baimena eman zion testu bategin bat onartzeko; bertan, behar bezala erregularizatuta, azalduta eta harmonizatuta integratuko dira Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua, hura aldatu zuten legeak eta testu artikulatuan txertatu ez ziren lege aldatzaileen xedapenak. Aipatutako baimen horri jarraikiz, testu bategina onartu zen: Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua. Hori dela eta, testu bategineko xedapen horiek guztiak ordenatu eta berriro zenbakitu behar dira udal ordenantzan.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantzak xedatzen duen guztia gaur egun indarrean dagoen legedira egokitzea.

B.4.3. ZIGORTZEKO AHALMENA ERABILTZEKO PROZEDURA LABURTUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa

Ordenantza honen xedea da Zarauzko Udalak zigortzeko duen ahalmenaren erabilera arautzea; alegia, prozedura laburtu bat jartzea arau-hauste arin gisa tipifikatuta dauden ez-betetzeen tramitazioan polizia-zeregina errazagoa izateko. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera, Udalak dauka zigortzeko ahalmena.

Zigor-prozedura honako hauek arautzen dute: (i) urriaren 15eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak eta (ii) martxoaren 16ko 1/2023 Legea, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa. Hori horrela, ordenantza eguneratu egin behar da, berritutako legeek xedatzen dutena bertan sartzeko.

Ekimenaren helburu nagusia

Ordenantzak xedatzen duen guztia gaur egun indarrean dagoen legedira egokitzea.

B.4.4.- KALE-SALMENTA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa

Ordenantza honen xedea da Zarauzko udalerrian salmenta ibiltaria arautzea. Salmenta ibiltaritzat hartzen da merkatariek merkataritza-establezimendu iraunkor batetik kanpo, orubetan, espazio irekietan edo bide publikoan egiten dutena, leku eta egun aldakorretan. Ordenantza honek, bereziki, hilabete bakoitzaren bigarren larunbatean Zarautzen egiten den hilabeteroko ferian garatzen den salmenta ibiltaria arautzen du. Ordenantza honen testua 1992 urtean onartu zen, eta ordutik ez da aldatu edo eguneratu.

Urteak pasatu ahala, eta 2000ko moneta-aldaketa, aurrerapen teknologikoak eta ordenantzaren oinarrizko araudian izandako aldaketak kontuan izanda, ikusi da ordenantza guztiz zaharkituta dagoela. Horrenbestez, ezinbestekoa da ordenantza lehenbailehen berritzea, indarrean dagoen araudian oinarrituz eta gaurko hiri-eremuen ezaugarriak kontuan hartuz.

Ekimenaren helburu nagusia

Ordenantzak xedatzen duen guztia gaur egun indarrean dagoen legedira eta hiri-eremuaren ezaugarrietara egokitzea.

B.5. EUSKARA

B.5.1. EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

B.5.2. ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

B.5.3. EUSKARA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Justifikazioa:

Hainbat dirulaguntza-oinarrik izaten zituzten aldaketa etengabeen ondorioz, eta azken urteetako koiuntura kontuan izanda (bereziki COVID-19aren pandemiak eragindakoa), urte batzuetan ekitaldi bakarrerako oinarri espezifikoak onartu izan dira. Dirulaguntza-oinarriei eta horietan zehazten den arautegiari iraunkortasun bat emateko asmoz, dirulaguntza-deialdi horietara aurkezten direnen segurtasun juridikoaren mesedetan, oinarri espezifiko horiek ordenantza bidez onartzea proposatzen da, hainbat urtetan arautegi berbera mantentzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntza-oinarriei iraunkortasuna ematea eta hainbat urtetan indarrean egongo diren oinarriak onartzea, dagokion ordenantza tramitatuz.

B.6. KULTURA

B.6.1. KULTURA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Justifikazioa:

Hainbat dirulaguntza-oinarririk izaten zituzten aldaketa etengabeen ondorioz, eta azken urteetako koiuntura kontuan izanda (bereziki COVID-19aren pandemiak eragindakoa), urte batzuetan ekitaldi bakarrerako oinarri espezifikoak onartu izan dira. Dirulaguntza-oinarriei eta horietan zehazten den arautegiari iraunkortasun bat emateko asmoz, dirulaguntza-deialdi horietara aurkezten direnen segurtasun juridikoaren mesedetan, oinarri espezifiko horiek ordenantza bidez onartzea proposatzen da, hainbat urtetan arautegi berbera mantentzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntza-oinarriei iraunkortasuna ematea eta hainbat urtetan indarrean egongo diren oinarriak onartzea, dagokion ordenantza tramitatuz.

B.7. HEZKUNTZA

B.7.1. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Justifikazioa:

Hainbat dirulaguntza-oinarririk izaten zituzten aldaketa etengabeen ondorioz, eta azken urteetako koiuntura kontuan izanda (bereziki COVID-19aren pandemiak eragindakoa), urte batzuetan ekitaldi bakarrerako oinarri espezifikoak onartu izan dira. Dirulaguntza-oinarriei eta horietan zehazten den arautegiari iraunkortasun bat emateko asmoz, dirulaguntza-deialdi horietara aurkezten direnen segurtasun juridikoaren mesedetan, oinarri espezifiko horiek ordenantza bidez onartzea proposatzen da, hainbat urtetan arautegi berbera mantentzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntza-oinarriei iraunkortasuna ematea eta hainbat urtetan indarrean egongo diren oinarriak onartzea, dagokion ordenantza tramitatuz.

B.8. GAZTERIA

B.8.1. GAZTERIA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Justifikazioa:

Hainbat dirulaguntza-oinarrik izaten zituzten aldaketa etengabeen ondorioz, eta azken urteetako koiuntura kontuan izanda (berezi COVID-19aren pandemiak eragindakoa), urte batzuetan ekitaldi bakarrerako oinarri espezifikoak onartu izan dira. Dirulaguntza-oinarriei eta horietan zehazten den arautegiari iraunkortasun bat emateko asmoz, dirulaguntza-deialdi horietara aurkezten direnen segurtasun juridikoaren mesedetan, oinarri espezifiko horiek ordenantza bidez onartzea proposatzen da, hainbat urtetan arautegi berbera mantentzeko.

Ekimenaren helburu nagusia:

Dirulaguntza-oinarriei iraunkortasuna ematea eta hainbat urtetan indarrean egongo diren oinarriak onartzea, dagokion ordenantza tramitatuz.

C) LURRALDE ARLOA

C.1. HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

C.1.1. ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Arlo honetan egon diren araudi aldaketak direla-eta (besteak beste, ekainaren 30eko 9/2022 Legea, Etxeko Animaliak babesteari buruzkoa, eta martxoaren 28ko 7/2023

Legea, animalien eskubideak eta ongizatea babestekoa) Udalak 2006. urtean onartutako ordenantza erabat zaharkituta geratu da.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza araudi-aldaketetara eguneratzea eta garai berrietara egokitzea. Aztertuko da soluzio egokiena zein den: lehengo ordenantza aldatzea edota hura indargabetu eta berri bat onartzea.

C.1.2. ZARAUZKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA (aldaketa)

Justifikazioa:

Indarrean dagoen ordenantza 2008an onartu zen, higiezin burbuilaren garaian. Geroztik, hainbat lege eta arau onartu dira, eta horiek eragina izan dute etxebizitza babestuen erregimenean: Etxebizitzaren 3/2015 Lege autonomikoa, eta bereziki, 2022ko ekainaren 30eko Agindua, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak arautzen duena; horiekin batera aipagarria da baita ere, Estatuko 12/2023 Legea, etxebizitza eskubidea arautzen duena.

Beharrezkoa da ordenantza gerora sortutako indarreko araudira egokitzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Ordenantza araudi berrira egokitzea, eta, bereziki, udal etxebizitza tasatuen gehieneko prezioak etxebizitza tasatu autonomikoekin parekatzea, horiek baino altuagoak ez izateko.

C.1.3. LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ORDENANTZAK (aldaketa)

Justifikazioa:

Indarrean dagoen ordenantza 2010ean onartu zen. Geroztik, goiko epigrafeko arau-aldaketez gain, hau onartu da erkidegoan: 80/2022 Dekretua, EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak

arautzen dituen. Dekretu hori 2023an sartu da indarrean, eta hainbat kontutan talka egiten du udal-ordenantzan jasotako bizigarritasun-baldintza teknikoekin.

Beharrezkoa da ordenantza gerora sortutako indarreko araudira egokitzea.

Ekimenaren helburu nagusia:

Goian aipatutakoaz gain, udal-ordenantzan jasotako bizigarritasun-baldintza teknikoak aztertu eta berrikusiko dira, Erkidegoko 80/2022 Dekretuarekin dauden kontraesanak ekiditeko.

Aldi berean, ordenantzaren zenbait konturen aplikazioa zabaldu egin nahi da Hirigune Historikoko beheko solairuetan egokitu daitezkeen etxebizitzetara, gaur egun erregulazio bereiztua baitute.

Aldaketa horiek, agian, indargabetu egingo dituzte 1.1 areako –Alde Zaharra– eta 1.2 areako –Hirigunearen zabalkundea– plan berezien ordenantza orokorretan behe-solairuetan etxebizitzak egokitzeko jasota dauden baldintza tekniko batzuk (bi plan berezietako 5. artikulua).

C2. HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUETAKO DEPARTAMENTUA

C.2.1. HERRIKO ZUHAITZAK KUDEATZEKO ETA BABESTEKO UDAL ORDENANTZA

Justifikazioa:

2023. urteko apirilaren 27an Udalbatzak HIRIKO ZUHAITZEN PLAN ZUZENTZAILEA onartu zuen. Bertako 9.8 puntuan, udal araudi bat adostea eta osatzea proposatzen da. Hori dela eta, herriko zuhaitz, lorategi eta gunek berdeak babesteko eta indartzeko araudi bat proposatzen da, Udalbatzaren onespena lor dezan.

Ekimenaren helburu nagusia:

Honakoak dira araudi honen helburu nagusiak:



- Herriko zuhaitz guztien kudeaketa, babesa eta kontrola bermatzea.
- Urbanizazio berrietako zuhaitzen hornidurak eta aldatzeko prozedurak finkatzea.
- Loretoki historikoen babesa lortzea.
- Zuhaitz babestuen zerrenda osatzea.
- Prozedura bat proposatzea zuhaitzetan eragindako kalteak neurtzeko eta zigortzeko.